



Errefuxiatuen lautik bat haurrak dira. Aris MESSINS | AFP

MILIOITIK GORA ERREFUXIATU

2015. urtean milioitik gora izan dira Europara lurretik eta itsasotik iritsitako errefuxiatuak. Aurrekaririk gabeko krisi humanitarioa da: iritsitakoen lautik bat haurrak dira eta lau mila baino gehiago dira jada bi-dean bizia galdu dutenak. Europak 500 milioi biztanle ditu eta agintariak errefuxiatu uholdea nola kudeatu hausnar-tzen ari dira orain. Borondatea da gakoa.



Emakume aktibistak ez zuen Draghi ukitu ere egin, baina agintaria beldurtu egin zen. GAUR8

DRAGHIRI PROTESTA PARE-PAREAN

Mario Draghi Europako Banku Zentraleko (EBZ) presidenteari protesta ma-hai gainera igo zitzaion, parez pare. Apirilean EBZk hartutako neurrien be-rrri ematen ari zela, mahaira igo eta konfeti batzuk bota zizkion aktibista batek, «amaitu EBZren diktadura» oihuka. Irudiak zeresana eman zuen.



la zen toki batean erori zen eta erreskate lanak korapilatsuak izan ziren. Anne Christine POUJOLAT | AFP

apropos eragin zuen istripua. Berehala atera ziren argitara Lubitzen buru osasu-
ipua eragin zuzena izan zuen hegazkinen barne segurtasuneko neurrietan.

PARIS COP21, KLIMARI BURUZKO GOI BILERA

Abenduan Parisen izandako CPO21 goi bileran lehenen-
goz onartu dute 200 he-
rrialde inguruk nazioarte
mailako akordioa klima alda-
ketari aurre egiteko.
Hartara, konpromisoa hartu
dute karbono kontsumoa
murriztuko duen ekonomia
baten alde pausoak elkarre-
kin emateko. Akordioa lortu
duten agintariak irribarretsu
eman zuten akordioaren be-
rrri, nahiz eta ez dituen iritzi
guztiak ase. Kritikoen ustez,
akordioak asko dauka diplo-
matikotik eta gutxi eragin-
kortasunetik. Bultzatzaileen
esanean, berriz, «mailu txiki
bat da, baina lan handia
egon dezakeela sinetsita
gaude». Ikusi egin behar.



Goi bilerako parte hartzaileek pozik ospatu zuten akordioa. Francois GUILLOT | AFP